

ortográficos, elementos de otros dialectos vascos y románicos.

Lan onek bete du batzaraldiko beta guzia ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik otoitzez amaitu da batzaraldia.

Iruñan, Aldundi-Jauregian, 1929'ko Epailaren 22'an.

Aurako batzaraldian aipatzen diran jaunak berak bildu dira. Intxaurondo jauna ez. Otoitzez asi da batzaraldia.

I.—Iztegi beñiaren lanetan jardun du Euskaltzaindiak. Lan oni dagokionerako, Altube jaunak idazki bat biali du, alako garantzizko oartxo batzuk egiñik, ta auxe ongi aztertu nai luke Euskaltzaindiak. Altube jauna, naiz beroni batzaraldi ontan izan ez, Iztegiaren lanetan iñor bezin langile azaltzen da. Berau emen ez dalako, ufengo batzaratarako utzi dira idazki ofen azterpen eta erautsia. Aitatu zan batzaraldi ontan, on litzakela, darabilkigun iztegi-eredu-erdaldunetik itzen batzuek kentzea, antxiñakoak izanik oraingo mintzaketan gutxitxo dabiltzalako.

II.—Euskaltzaindiak bere urgazle izendatu du Anjel Irigarai jauna, euskerakiko lanetan gizon trebea.

Donostian, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian, 1929'ko Joñailaren 25'an.

Batzar ontara euskaltzain jaun abek eldu dira: Kampion maipuru, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza,

Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe ta urgaztetatik Ormaetxea. Otoitzez asi da batzaraldia.

I.—Kanpion jaunak dio : atsekabez jakin duela Azkue jauna oeraturik arkitzen dala, erortze batez besoan min artu duelako. Beste euskaltzain jaunak ere atsekabe izan dute, ta guztion gogoa da lenbailen geon artera datořela. Ala izango da noski, min sakonik, esan digutenez, ez duelako.

II.—Irigarai Anjel jaunak idatzi digu esanik, poz aundiz artu duela biali zaion urgazle-izendamentua ta eskeřak.

III.—Lekarotzko Ikastetxeoak, nai luteke, antxen, urtero bezela, euskaltzain bat agertzea, bertako euskal-azterketarako. Euskaltzaindiak ontarako izendatzen ditu Kanpion eta Migel Intxaurondo jaunak.

IV.—Aita Intzak esan digu: *Euskeraren adiskideak* oso lan eder ta zabala Napařoan egiten ari dirala : euskeraz dakiten mufil ta nexka koxkořai sariak ematen dizkie ta artzen duten diru guzia euskal-aur ta txistularientzat banatzen ditu. Bähr jaunaren lantxo bat argitaratu dute : *Schuchardt-bizitza*, 12 orialdeko liburutxo. Abek pozik entzun ditu Euskaltzaindiak.

V.—Ormaetxea Nikolas jaunak *Euskaltzaleak* deitzen dan baltzuaren izenean, galdetzen du : Noiz izango ote duen Euskaltzaindiak bere *euskal-eguna*. Erantzun zaio : oraingoz beiņipein ezin dala ezertxore esan ta gutxi go beřiz erabakirik artu.

VI.—Ormaetxea berak, *Kirikiņo*-ren sarirako zer-bait Euskaltzaindiagandik nai luke. Euskaltzaindiak erabaki du : Izanik *Kirikiņo-saria* euskerari ta onen auřerapenari dagokien susperbide oneratsua, diru biltzea amaitzen dan garairako, *500 peseta* emango ditu.

VII.—Schuchardt jaunaren izenez, urteroko saria